


97. zk.
2001eko urtarrila

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria



Franko itundua 48/27



Andre Mari.
800 urte.
XXI. mendean



2001. Urte ona izan dezazuela!


4-6. orr.
zizka-mizkak

7. orr.
geu, aek, ttarttalo



9. orr.
denon eskola

11. orr.
euskaltasunean lagun, Miriam
Uribe-Etxebarria



12-15. orr.
Andre Mariren proiektua. XXI

17. orr.
plisti-plasta. kozkortuz

hilabete honetan

18-19. orr.
kozkortuz. hizkuntza, bihotza



21-23. orr.
Gasteizko Udal Txistulari Banda:
75 urte, bide berriak, lehen
diskoa

24-25. orr.:
bambi ikastolaren gorako bidea,
euskalduntasunean

26-27. orr.:
Ismene
Eizmendi,
Miss Araba

29-31. orr.:
sexuaz gozatu
Pittilingorriekin

33. orr.:
zeuk aukeratu!

34. orr.:
komikia...



termometroa



2000.eko
abenduak
21. Azaroan
aurkeztu
Udalaren web
orria, www.vitoria-gasteiz.org, bisitatu eta

oraindik euskaraz egiteko aukerarik ez...

Noizko euskarazko orria?

zenbakia

1



DICIEMBRE DE 2000 PUBLICACIÓN MENSUAL Nº 0 PRECIO 350 ptas EJEMPLAR GRATUITO

Nace el primer periódico de mujeres de Euskal Herria

ANDRA es una publicación mensual y comenzará a venderse en los quioscos en enero

ANDRA, EUSKAL HERRIKO EMAKUMEON LEHENENGO EGUNKARIAREN (HILABETEKARIA-ELEBIDUNA) 1. ALEA URTARRILEAN KALEAN!. ABENDUAN 0 ALEA KALERATU DA ZORTE ON!



GEU Elkartearen ekimenez egina

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a • Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. **Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. **Argazkiak:** Edorta Sanz. **Bestelako irudiak -bilaketa:** E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B. **Maketa:** DOAL. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Araba Bixotzian:** Agurtzane Villate. **Kolaboratzaileak:** Amaia Zaldúa, Maider Perez eta Iñaki Zorrakin. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain. **Sustapen-harpidetza saila:** E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500 • LG: VI-582/92 -ISSN: 1133-0988 -

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.




ikusi-makusi



“EUSKARA VOLUNTARIO” PEGATAK BERRIRO ERASOAN!
Geu elkarte eta Geu aldizkariaren buzoian ageri zen...
Hitzak soberan daude.

araba bixotzian Agurtzane Villate



“GasteIZkinak”. Agurtzane Villate Ruiz de Gordexola • Jaioterria, jaioteguna: Gasteiz, 1969ko urriak 1
- Irudigilea, euskara irakaslea IKAn • Irudiz hornitutako liburuak: Ali Baba, Zer dela eta zer dela,
Joanaren erregin aulkia, Aladin, Sinbad, Auskalo... Eta 2001. urtean zehar, Geu aldizkaria!




izenak

EMAKUME!

“Kalea eta gaua
gureak ere
badirelako!”

Argazkia: HIKA. abendua-00

naturaren isladak



Iñaki Zorrakin

Hegabera (*Vanellus vanellus*). Salburua (Arkaute). Ezetz asmatu nondik jotzen duen haizeak.

**Ttarttalo (Elkarlanean)
argitaletxeak aurkezten du...**



Jon Arretxeren ZAZPI KOLORE

Jon Arretxek idatzitako ipuin liburua da Zazpi kolore. Leku jakin batean ez baina munduko lau bazterretan ikusitako gertakarietan inspiraturik idatzitako istorioak biltzen dira bertan.

TTARTTALO LEHIAKETA :

**JON ARRETXEK IDATZITAKO BESTE LIBURU
BATEN IZENBURURIK EZAGUTZEN AL DUZU?**

Bidaliguzu erantzuna postaz (Geu aldizkaria. Pedro Asua 2-3.a 01008-Gasteiz) zein e-mailez (geugaste@grn.es) eta parte hartuko duzu Elkarlanean-ek kaleratu bi libururen zozketan!!! **ZORTE ON.**

GEUREKIN MENDIRA

**GAZTELU ETA TXURREGI
(Irurzun ondoan)**

**Noiz: Urtarrilaren 21ean
Irteera: 8.30etan**

**Txapela tabernaren aurrean
Itzulera: 15.00ak aldera
Arduraduna: Kike
(945-140158)**

AEKrekiko elkartasuna



Gizarte arabarraren hainbat sektore AEKren alde agertu ziren abenduaren bukeran egin prentsaurreko batean. Sinaduren artean honako hauek zeuden, besteak beste: musika arloan, Kontrairo, Betagarri, Trepí eta Arawak eta Mikel Telleria; Patxi Bisquert aktorea; EHUKo irakasleak diren Iban Zaldúa, Gidor Bilbao eta Iñaki Kamino; Imanol Agirre eta Oier Zearra pilotariak; Euskalgintzan, Ika, Euskharan, Bertsolarien elkarte, Geu elkarte, Bagare Euskaltokia...

AEK AURRERA, EUSKARA AURRERA!

**GURE DELITU BAKARRA
EUSKALTZALE IZATEA DA!**



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 – GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

MIKO
izozkiak

**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia
Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

LIBURUDENDA
axular
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

**MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK**
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Campusean
• liburudenda
• paperdenda
• informatika
bertan
Arriaga
Campus
Unibertsitate Pabilioia
Apraiztarrak, 1

Obren egite
eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01
• Material escolar y de oficina
• PAPER BIRZIKLATUA
• Fotokopiak
kolorez eta Zuri-Beltzean
Arte ederretarako...
behar duzun
guztia
PAPERTEGI TEKNIKOR

ARANBIZKARRA
**ZURE
AUTOESKOLA!**
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

**MendiaOptikan gero eta
errazagoa da
gehiago lortzea.**

Izan ere, erabili eta botatzeko Multilens
lenteen 6 hilabeterako* Packa erosita,

14.900 pta.

baino balio ez duena, sudadera zoragarri
bat oparituko dizugu.

*Hilero aldatzeko lente-kaxa bi, 500 ml-ko disoluzio
bakarreko bi pote eta lenteentzako zorroa.

**BAUSCH
& LOMB**

**MENDIAOPTIKA
MULTIOPTICAS**

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Eztabaida Ikastetxean

Euskal Eskola Publikoak hezkuntza, formazio eta gure seme-alaben potentzialitateak garatzeaz gain berezko erantzunak izan behar ditu gizarteak aurkezten dizkigun galderen aurrean. Hori dela eta, gu Arabako ikastetxe publikoetako gurasoek, Euskal Eskola Publikoaren parte garen neurrian, Denon Eskola, Arabako Ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen federaziotik gizarte mailan interesekoak diren hainbat gairen inguruko eztabaida eragin nahi dugu. "EZTABAIDA IKASTETXEAN" izenburupean antolatuko diren jardunaldi hauek ikastetxeetako gurasoei, lehenengoko aldiz hezkuntza ereduak aukeratu behar duten gurasoei, hezkuntzan ari diren profesionalei, eta orokorrean tratatuko diren gaien inguruan interesaturik dagoen edozein herritarri zuzenduko zaizkie.

Lehenengoko edizio honetarako proposatzen ditugun gaiak ez dira bakarrik, baina gure eguneroko heziketa jarduerarako ekarpen interesgarriak egin ahal dizkigute. Hauek lirakeke gaiak:

EUSKAL GATAZKA. Normalizaziorako zenbait proposamen.

Denok dakigu gaur egun tentsio handiko garai politikoa bizi dugula gizarte mailan, ematen diren jarrerak geldirik egunez egun batzuen eta besteen arteko aldea handituz doan bitartean. Gure seme-alabek galdera zailak egiten dizkigute eta egoera ulertzeko erantzun ulergarriak eskatzen dituzte.

Hori dela eta lehenengoko jardunaldi hau proposatzen dizuegu, beste ikuspegi sozial bateko informazioa jaso dezagun, Indarkeria-ezaren ikuspegitik irteera negoziatuaren alde lan egiten duten gizarte eragileek ikuspegia alegia. Horretarako ELKARRI eta GESTO POR LA PAZ izango ditugu gurekin, proposamenak eskaintzen eredu garrantzitsu bihurtu direnak; haien ekarpenek gure etxetatik lan egiteko ildoak emango dizkigute.

Gidoia:

- Gatazkaren garapen historikoa.
- Elkarrietzaketa. Zergatik?
- Aurrera egiteko proposamena.
- Etxetatik: gure ekarpen xumea.
- Eztabaida

EGUNA: 2001.eko URTARRILAK 15

LEKUA: Caja Vital Fundazioa Gela – Dendaraba
ORDUA: 19:00. Sarrera dohainik.

EUSKARA. Aukera berdintasuna.

Gutxitan izan gara euskararen inguruko hain eztabaida bero baten aurrean. Hainbat sektoretatik, oso modu erasokorrean, kokan jarri nahi dituzte euskaraz, bere osotasunean ala partzialki, burutzen diren hezkuntza ereduak. Baina ez da eredu bakoarrik zalantzan jartzen, nolabait ereduak aukeratu duten gurasoen ahalmena ere zalantzan jartzen da.

Onartu behar da euskara oraindik desabantailan aurkitzen dela Araban eta hori dela eta hainbat taldek, prozesuak errespetatuz, Araba elebiduna izan dadin lan egiten du. Hori buruz hitz egiteko talde hauen ahaleginak bateratzen saiatzen den EUSKALTZALEON ELKARGUNEA gonbidatu dugu. Era berean –ren laguntza izango dugu gure kezka izan daitezkeen aspektu pedagogikoen inguruko zalantzak argitzen saiatuko dena.

Gidoia:

- Euskalduntze prozesua Araban.
- Oztopo gehiegi geldiezina den prozesuari.
- Eskola euskalduna ingurugiro erdaldunean. Mitoak apurtuz.
- Eztabaida

EGUNA: 2001.eko URTARRILAK 22

LEKUA: Caja Vital Fundazioa Gela – Dendaraba
ORDUA: 19:00. Sarrera dohainik.

HEZKUNTZA AISIALDIAN. Kontsumismotik partehartzera

Gure seme-alabek hainbat errekurtso dute eskuragarri aisialdia betetzeko. Ludotekak, gizarte etxeak, aisialdi guneak, errekurtso informatikoak, kirola, kultur kontsumoa,...

Halere badira beste alternatiba batzuk. Hauen artean "Hezkuntza Aisialdian" ikuspegitik lan egiten duten taldeek aurkeztuko dizkigutenak. Haien helburua, haiengana hurbiltzen diren ume eta gazteei espazio ludiko eta jai girokoa eskaintzeaz gain, hiritar kritikoak, lagunkideak eta parte hartzaileak sortzea. Eta emaitzak argi daude. Hainbat urte dira hainen bizkarretan. Haien metodologia parte hartze aktiboan oinarritzen da, hasieratik bukaerara. Gure aisia betetzeko modu ez kontsumistak ere badi-rela erakutsi nahi digute.

Aisialdi Foroa koordinadorako ordezkariak izango ditugu Vitoria-Gasteizen dagoen eskaintzaz hitz egingo digutenak.

Gidoia:

- Aisialdirako taldeak. Zer dira eta nortzuk dira?
- Inguruan txertatutako hiritar kritiko, lagunkide eta parte hartzaileen alde. Filosofia.
- Nola egin? Metodologia.
- Gaur egungo oztopoak.
- Eztabaida.

EGUNA: 2001.eko URTARRILAK 29

LEKUA: Caja Vital Fundazioa Gela – Dendaraba
ORDUA: 19:00. Sarrera dohainik.

GIZONA-EMAKUMEA. Berdintasunean hezten.

Sinesgaitza da oraindik XXI. mendean, eta herri garatu batean, familia guneetan ematen diren tratatu txarretako albisteak entzuten ohitu garela eta haxe kezkarria baino ez da. EMAKUMEEK jasaten dituzten tratatu txarrak eta ondorioz haien seme-alabek. Eta ez dezala inork bere burua engaina gure gizartearen bazterreko giroetan soilik ematen direla pentsatuz. EZ. ZU aritzen zaren gizarte maila horretan ere ematen dira.

Hezkidetzak, pertsonetikiko errespetua, aukera berdintasuna eta antzerako gaiak lantzeko orduan eskolak ezinbesteko erreferentzia izan behar du.

Eztabaida honetarako honako bi talde hauek izango ditugu gurekin: EMAIZE Y AIZAN, ikuspegi ezberdinetatik lan egiten badute ere gai honen aurrean hurbil daudenak.

Gidoia:

- Aita-amak: rola versus estereotipoak.
- Etxeko lanak: hezkuntzarako erreferentzia garrantzitsua.
- Hizkuntzaren garrantzia.
- Eskola: gizarteratzeko lagungarri.

EGUNA: 2001.eko OTSAILAK 5

LEKUA: Caja Vital Fundazioa Gela – Dendaraba
ORDUA: 19:00. Sarrera dohainik.

NON BAIT

ZURE
EUSKAL
DENDAK

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

JANTZI
ETA
OPARIAK

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfno: 945 26 07 10
GASTEIZ

AMILAMIA
arropa eta osagarriak

Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ


arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38


uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko artzain)
Tfnoa: 945 25 03 52

Confecções
Pinedo
JANTZIAK
San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

RAFA TEJA ATELIER

"Zetazko eta
kotoizko ehunak
eskuz margotuak"
- ZAPIAK -
Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

Argazki - Estudioa
Erramun
Heradio Fournier, 23
Tfno: 13 71 02
01006
Askatasun kalea, 5
Tfno: 26 19 91
01004

BEIRATE
ESTUDIOA

MIKEL
DELIKA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA

Miriam Uribe-Etxebarria

Miriam Uribe-Etxebarria Bilbon jaio zen 1962an, baina duela hiru urte Gasteizen bizi da. Estatu Batuetan bederatzi urtez bizi izan da eta une honetan Euskal Filologiako irakaslea da.

Bere anekdoten artean bat gogoratzen du bereziki, lan elkarrizketa bat egin behar zuen eta beste bati egin zioten bera zela ustean.

“Bizitzari orain arte bezala jarraitzea eskatzen diot”

- DUZUN BIZIARIK HANDIENA?

- Momentu honetan nire alaba.

- ETA BERTUTEA?

- Ez dakit, besteek esan beharko lukete.

- ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI?

- Orain arte bezala jarraitzea.

- ZER ESKATZEN DU HERRIAK?

- Gauza asko eta batzuk kontrajarririk.

- JENIORIK BA AL DUZU?

- Bai, hala diote behintzat.

- ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?

- Egoeraren arabera.

- GEU-REN BERRIRIK BAI?

- Bai, lagun bidez ezagutu nuen.

- EGUNKARI BAT?

- Une honetan asko irakurtzen ditut. Momentu honetan ezer jakiteko bat baino gehiago irakurri behar dela iruditzen zait.

- PELIKULA ONEN BAT?

- Ez dut izenburua gogoratzen, baina zuzendari pakistani batena da.

- TELEBISTAKO

PROGRAMARIK?

- Ez zait bururatzten gustuko dudana saiorik.

- JAKI GOXOREN

BAT?

- Asko.

- ZURE GORPUTZEKO ATALIK POLITENA?

- Ez dakit.

- OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

- Azkenengoak Menorcan pasa nituen eta oso gustura gainera. Eta, zertarako? Atsedena hartzeko.

- TXIKITAKO OROITZAPENIK?

- Busturiako hondartza.

- LIBURU GOMENDAGARRIREN BAT?

- Irakurri dudana azkenengoak, “Girl with a pearl earring”, Tracy Chevalier-ena.

- DENBORA IZANEZ GERO, ZER, NORA, ZERTARAKO?

- Momentu honetan atsedena hartzeko.

- GASTEIZEK DUEN ONENA?

- Oinez joan daitekeela ia edonora.

- ETA TXARRENA?

- Batzuetan kontserbadoreegia dela.

- EUSKARAZ BIZI AL DAITEKE GASTEIZEN?

- Lagun eta familia artean bai, baina beste eremu batzuetan ezinezkoa da.

- ZER NAHIKO ZENUKE JENDEAK ESATEA ZU HIL ETA GERO?

- Hil ondoren esango dutena bainoago hil aurretik esaten dutena inporta zait.

- MOMENTUKO KEZKARIK HANDIENA?

- Gertuko senide baten osasuna.

- GOGOKO MUSIKARIK?

- Klasikoa entzuten dut gehienbat.

- KOLORERIK GUSTUKOENA?

- Gorria.



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Bacalao Giraldo

• Egunko makailu gesaldia


• Makailua eramateko prest

• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
“kalitatea eta
erosotasuna zure esku”



Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldian plaza • GASTEIZ



Andre Mari, XXI. mendeko katedrala

2010. urtean, Gasteizko katedral zaharrean hasi diren berrikuntza lanak bukatzean, XXI. mendeko eraikina izango du hiriak. Horixe izango da 4.000 milioi pezetaren inbertsioa eta hamar urtetako lanaren emaitza. Baina Katedralaren Fundazioan lan egiten dutenen begirada urrunago doa, lanak amaituta egin daitekeen guztiarekin ametsetan: Hiriari buruzko museoa, ikerketarako zentrua, ofizio zaharrak berreskuratzeko tailerrak,...

Gasteiztar gehienek dakite dagoeneko Gasteizko katedral zaharreko berritze lanak adituen esku daudela, eta Jose Ignacio Lasagabaster, Diputazioaren Hirigintza Saileko arkitektoak dioenez, Eraberritze Plan Nagusiak agintzen dituen lanak amaitu eta gero “egin zuten momentuan bezala geratuko dela” uste du jendeak. Lanak hobekien ezagutzen dituen gizonak, berriz, hori ezinezkoa dela azaldu du: “Ezinezkoa da katedrala sekulan ez delako ‘egin’. Hau da, XII. mendean ez zuten orain bezala lan egiten, ez ziren proiektu bat amaitu arte planoei begira aritzen”.

Izan ere, Gasteiz hiri zaharraren harresiaren gainean egindako eliza txiki bat da Andre Mariren oinarria. Bere gainean garaiko estiloari jarraituz egindako zabaltze lanei esker katedral bihurtu arte hazi egin da.

Gauzak horrela, lana non bukatu da arkitektoei sortzen zaien zalantza. Bere garaian egindako lan batzuk zuzendu eta finkatu beharko dituzte langileek, baina “azkenean gauza berriak ere egongo dira; eta ez bakarrik amaitu gabeko elementuak guztiz ‘bukatzeko’, baizik eta elizak egungo gizartearen ohiturei ere erantzun egin behar dielako”.

XII. mendean, eta geroago ere, katedrala otoitzerako gunea baino ez zen, baina egun bere hormen artean 800 urteko historia gordetzen duen etxea hori baino gehiago izatea eskatzen du gizarteak. Zer? Museo bat, kontzertuetarako gunea,...

EGUNGO BEHARRETARA EGOKITU

Aiztogile kaletik izango du sarrera “hiriaren museoak” eta Gasteiz nola eta zein urratsetan sortu eta hazi den azaltzeko helburuarekin egin dute. “Hori egiteko lan berriak egin behar direla argi dago, ezinezkoa baita inguru horretako etxe zahar batean museoa jartzea bestela. Era berean, kontzertuetarako gunea egokitzeko egurrezko hormak jarri beharko ditugu”. Guztiaren ondoren “XXI. mendeko katedrala izango dugu”, Lasagabasterren ustez.

Berrikuntzak dagoena errespetatuz eta eraikinaren oreka bermatuz egitearen garrantziaz ohartarazi du Foru Aldundiaren arkitektoak: “Berritzeko orduan egin zutenean erabilitako teknika berdinekin aritzea zeharo beharrezkoa dela ziur gaude”. Medikuntza ebakuntzetan gertatzen den bezala, gorputzean sartzen den organo berria onartua izan dadin bateragarritasunak kontuan hartu behar dira: “Adibidez porlana erabili ohi da gogortzeko denbora gutxiago behar duelako, baina karearen gainean botaz gero arazoak ematen ditu eta azkenean erori egiten da”. Beraz, XII. mendeko tekni-

kak erabiliko dira, garai hartako langileek ametsetan ere ezagutzen ez zituzten baliabide teknikoez lagunduta, hori bai. “Eta XXI. mendeko gangak egin ditzakegu, ordenadorez diseinatutakoak gainera; berdin beirate eta beste hainbat elementu”.

LEHENENGO URRATSAK

Berritze proiektua egia bilakatzeko lehenengo urratsak ematen ari dira egun. Proiektu arkitektonikoa ez dago oraindik bukatuta, baina horrek ez du esan nahi lanak hasi gabe daudenik, ekimenik urgenteenak martxan baitaude eta azterketa arkeologikoak ere hasi dira. “Azterketa horiek amaituta beharko lukete jadanik,



Lanen berri zehatza dute aurten katedrala bisitatu duten 23.000 lagunek

baina oso elementu interesgarriak aurkitu ditugu eta aztertzen jarraitu behar dugu”.

Lanen berri zehatza dute aurten katedrala bisitatu duten 23.000 lagunek. Hasiera-hasieratik erabaki zuten Eraberritze Planaren buruek prozesu guztia atea zabalik zeudela burutu behar zela, gasteiztarrek bigaitze lanetan murgildu eta inplikatu. Ezin arrakastatsuagoa izan den ideiak “lanak ere baldintzatzen dituela” adierazi du Lasagabasterrek kexurik bota gabe.

4.000 MILIOI

Lau erakundek lanek balio duten 4.000 milioi pezeta ordaintzeko konpromisoa hartu dute: Arabako Foru Aldundiak (1.300 milioi), Gasteizko Udalak (1.000),



Madrilgo Sustapen Ministerioak (1.400) eta Gasteizko Gotzaintzak (300). Lanean lehenengo hasi eta, beraz, lehenengo ordaintzen hasi beharko duena Sustapen Saila da, "lan zati osoak" egingo baititu: "dorreak berrikuntza, adibidez, bere esku geratuko da, eta proiektu guztia amaituta egon barik ere lanean has daitezke".

Izan ere, behin-betiko proiektua 2001. urteko ekainean aurkeztuko du Aldundiak, "eta ordura arteko sei hilabeteak pentsatutako guztia koordinatu eta eztaba-datzeko aprobetxatu behar ditugu".

GURE HISTORIAREN LEKUKO

Gaur egun ezagutzen dugun Andre Mari katedrala 1200. urtea baino lehenago dagoen tokian zegoela egiaztatzen duten dokumentuak daude. Ordutik hona, eta Diputazioaren ekimenez egiten ari den azkena kontatu gabe, 120 berrikuntza lan pairatu ditu. Garairik garai helburua katedrala ederrago egitea bazen ere, lan

bakoitzak katedrala 'gaixotu' zuen, orbainak egin zizkion. Egun, XXI. mendean zergatik badakigu: "sintomak kentzen saiatu zirelako, gaixotasunari aurre egin gabe".

Zauririk handiena XV eta XVI. mendeetan egin zioten, egurrezko gangak kendu eta harrizkoak jarri zizkionten. Eraikinak ez zuen pisua sostengatzeko indarrik eta ondorioak oso kaltegarriak izan ziren.

Ondorioz, eliza zaharra erortzeko arriskuan egon da behin baino gehiagotan. Duela bost urte Andre Mari ixtea erabaki zuen Udalak, istripuren bat gerta zitekeelakoan. Baina erortzeko arriskua ez zen gauza berria, XVI. mendean Gasteizko zinegotziek katedralean egin behar zen ekitaldi batera sartzeari uko egin baitzioten, hormak gainera eroriko ziren beldur. Mende bete geroago ere mezetan zeuden apaiz eta fededunek otoi egiteari utzi eta kalera korrika eta presaka atera behar izan zuten gangen zatiak burura erori zirelako.

Nola edo hala, XVI. mendean erortzekotan zegoen eliza zaharra XXI. mendean sartu da. Bere horma traketsek uste baino indar handiagoa dute antza.

"Oso elementu interesgarriak aurkitu ditugu eta aztertzen jarraitu behar dugu"



120 berrikuntza lan pairatu ditu, lan bakoitzak katedrala 'gaixotuz'



ANDRE MARI KATEDRALA FUNDAZIOA

Hamar urte barru katedral bigaitu eta "berria" izango du Gasteizek, baina eraikina berpizteko ahaleginak ez direla eliza berrinauguratzen den egunean amaitu behar uste dute Fundazioko kideek, "batetik ez delako komeni, erai-kin zahar bat agure bat bezalakoa da, ezin diozu zaintzeari utzi hil egingo litzatekeelako". Baina, bestetik, katedralaren proiektuaren aldeko ekimenek eraikina bera baino haratago joan behar dutela iruditzen zaielako, "hamar urte horiei zuku guztia atera behar zaie, adibidez, fundazioa ikasketa zentro bihurtuz". Hori daukaten ideietako bat baizik ez da, eta gehiago sakondu behar dela onartzen dute, "ekimen berritzailea izan- nik aukera guztiak ondo aztertu behar direlako".

Carlos Rodriguez, Fundazioko ordezkariaren iritziz ekimen horiek kontuan hartzekoak dira katedrala eta hiritarren artean harremana sortu eta sendotzeko balio dutelako. Horren harian ere epe laburrera eliza zaharraren adiskideen elkarte bat sortuko da, "museoetan egoten diren horien antzera", Rodriguezek azaldu duenez. Etorkizun handia ikusten die Fundazioak Andra Mari katedrala eta bere inguruan sortuko diren ekimenei, eta orain arte bururatu zaizkienak ez dira gutxi: bisita egitaraua sendotu, tailer eta ikastaroak antolatu, boletín bat atera, dokumentazio zentroa antolatzen hasi,...

"XXI. mendeko katedrala izango dugu"

**"Berritzeko orduan egin zute-
nean erabilitako teknika berdine-
kin aritzea zeharo beharrezkoa da"**





GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA



"SAN FRANCISCO
JAVIER" KANTOIAN

Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

adi
otsailari
martxoari
apirilari



BAR
KLAKÉ

KUTXA, 2
TFN.
143883



GASTEIZ



"Zure ametsak egia
bihurtzen diren tokia"

IBAIZAR BASERRIA, 4
SOJO-ZOLLO • 01478 ARABA
Tel/Faxa: 945 396 686
www.euskalnet.net/eskutxi
E-Mail: eskutxi@euskalnet.net

MERKURIO-KADMOAN
%0a



CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

ametsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax.: 945 26 46 43




etxean jaso nahi dut



Izena		
Abizenak		
Helbidea		Tfnoa:
P.K.	Herria	Herrialdea
Bankua/Kutxa		Sukurtsala
Kontu zk. (20 digitok)		Titularra

Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu:
GEU aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ

KOZKORTUZ



Pausoak:

1- Folioaren (aukeratu kolorea) alderik zabalena erditik tolestu, eta bi aldeetako batean, erdian, lerro etenaz hiruki bat margotu (ikus. irudia). Gero, hirukia erditik moztu tontorrera iritsi arte.

2- Hirukia marra etenetatik tolestu eta, ondoren, orri osoa kartulina batean (hautatu kolore bat) itsatsi, pegamentoa soilik izkinetatik emanaz (irudian ageri den bezala, igelaren muturra... garbi ikusiko duzue...)

3- Margotu orain gure igelaren begiak eta hankak (beste kolore batzuk), moztu eta paperaren gainean erantsi.

Apaindu zure irudia nahi duzun bezala.



IGELA

✦ **Helburuak:** ✓ Oso era erraz eta merkean postal bat eraikitzea. ✓ Irudimenaren bitartez irudi bati "bizitza" ematea. ✓ Eta noski ... ONDO PASATZEA!!!!


✦ **Adina:** 4 urtetik aurrera.

Materiala: Kolorezko folioak, kartulina, guraizeak, margoak eta pegamentoa.



"HERRIA DA GORPUTZ"

Zineman euskarazko
film gehiago botatzea
Ume gehiagok euskaraz
ikasketak egitea eta jende
helduak euskara ikastea



JOSU, 8 urte

Ikastolaz ikastola, eskolaz eskola, ika
bultzatzeko ideia -orijina
eta **euskararen aldeko m**
hilerik hile, Gasteizko umeen

Hona hemen, beraz, Armentia I
bultzatzeko ideiak edota eusk



MIREN, 8 u

Albiste gehiago
euskaraz argitaratzea
Gero eta ume gehiagok
ikastoletan ikastea



ANE, 8 urte

Jendeak euskaraz
gehiago hitz egitea
Ez dakitenei
euskara irakatsi

A, HIZKUNTZA BIHOTZA" KOKORTUZ

etxez ikastetxe **euskara**

k badira, askoz hobeto...-

ezuen bila arituko gara
notsa plazaratu nahian.

astolako umeen euskara
raren aldeko mezuak:

Egunkari gehiago
euskaraz izatea
"Euskaraz hitz egitea ona
da eta euskara ikasten
saiatu behar dugu"



UXUE, 11 urte

Jendeari esanez
euskara gehiago ikasi
behar duela ikastoletan
Jendeak euskara
ikastea

Jendeak euskaraz gehiago
mintzatu behar du, eta gurasoek
bere umeak ikastoletara eramatea.
"Euskarari laguntzen badiogu
hizkuntzarako hobe izango da"

JON, 11 urte



MAITANE, 11 urte

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



XABIER AIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*

iturrieta

ADI
Sagardo
berriari

Sagardotegia



URTE BERRI ON!

Arraga auzoa.

tfnoa: 945 44 53 85

ARAMAIO

adaka
madinabeitia



Floridako altxorra !

35

altzariak • apaindurak Florida, 35 – Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ



Txistulari Banda igandeko dianetan 1930 urtearen inguruan. Ezkerretik eskubira: Primitivo Onraitia, Luis Revuelta, Felix Ascasso eta Angel Emilio Yus.

GASTEIZKO UDAL TXISTULARI BANDAREN 75. URTEURRENA

Bandak bere lehenengo diskoa grabatu du txistuari tratamendu berria eman nahirik

Otsailean kalean!

Dagoeneko 75 urte pasa dira Gasteizko Udal Txistulari Banda bere lehendabiziko biribilketez kaleak alaitzen hasi zenetik. 1924. urtean izan zen hau, ordura arte Udalak hiriko jai eta ospakizunetarako era puntualean kontratatzen zituen txistulariak. Baina norbaiti zor baldin bazaio Udal Txistulari Bandaren sorrera pertsona hori Primitivo Onraitia dela baieztatu daiteke, dudarik gabe.

Ordurako Onraitia txistulari eza-guna zen, beste batzuen artean Sestaoko Bandan ibilitakoa, eta zailtasun handirik gabe puntuaziorik garaiena eskuratu zuen oposaketa-proba guztietan.

Horrela, Udaleko lehenengo txistulariaren kargua erdietsi eta hogeita hamar urtez lanean jardun zuen, 1954an jubilatatu zen arte. Lehen hamar urte horietan bandaren oinarriak ezarri zituen.



Txistulariak festa-jantziaz Andre Maria Zuriaren omenez aureskua jotzen.



Udal Txistulari Banda 1999an (75. urteurrena), antzinako bandaren argazki baten ondoan. Ezkerretik eskubira: Garikoitz Mendizabal, Eneko Espino, Roberto Alvarez, Itziar Ruiz de Oña, Gorka Errezil eta Amaia Ruiz.



Felix Ascasso Martinez de la Pera, Txistulari Udal Bandaren zuzendaria (1955-1974) 4 ikaslerekin. 1955ean ateratako argazkia. Ezkerretik eskubira: Jose Luis Fernandez "Zapa", Jose Ignacio Martinez de Luna (Bandaren zuzendaria, 1977-1997), Felix Ascasso, Patxi Martinez de Luna eta Ignacio Elozegi. Zuriaren omenez aureskua jotzen.



1950 urtearen inguruan. Txistularien kalejira Olarizun. Primitivo Onraitia, Luis Revuelta eta Angel Emilio Yus (eta Felix Ascasso estalita).

HASTAPENAK

Primitivo Onraitarekin batera, antzinako txistulari talde hura garaiko beste musikari ospetsu batzuek eratzen zuten: Carmelo Ibarzabal, Luis Revuelta eta Angel Emilio-Yus. Bandak arrakasta garrantzitsuak izan zituen Onraitaren zuzendaritzapean, hala Gasteizen bertan nola hiritik kanpo. Hala ere, Ibarzabalek laster utzi zuen bertako taldea Zestoako Bandan zuzendari kargua hartzeko. Eta Zestoako Banda horretatik, hain zuzen ere, gaurko bandaren zuzendari dugun Garikoitz Mendizabal txistulari bikaina dator. Ibarzabalen ordeiz, 1954 eta 1974 urteen artean zuzendari lanak bete zituen Felix Ascasso sartu zen.

75 urteotan Gasteizko Udal Txistulari Bandak bost zuzendari ezagutu ditu: Primitivo Onraitia (1914-1954), Felix Ascasso (1954-1974), Jesus Moraza (1974-1979), Jose Ignacio Martinez de Luna (1977-1997) eta Euskadiko txistularien txapelduna den Garikoitz Mendizabal (1997-2000). Gainera, hogei txistularik baino gehiago parte hartu dute taldean.

Norbaiti zor baldin bazaio Udal Txistulari Bandaren sorrera pertsona hori Primitivo Onraitia da

BELAUNALDI BERRI BAT

Gaur egun bandak protokolo zereginak betetzen ditu gehienbat: Festa egunetako dianak, ezkontza zibiletan jo...

Bestetik, Txistulari Banda 1990etik Kultura Sailaren barruan dagoen Udal Folklore Akademiaren barnean dago. Akademian banda eratzen duten txistulariek irakasle lanekin tartekatzen dituzte haien protokolo jarduerak.

Garikoitz Mendizabal, Roberto Alvarez, Itziar Ruiz de Oña, Eneko Espino eta Gorka Errezilek osatzen dute gaur egun Udal Txistulari Banda. Gaztetasuna da taldearen ezaugarri nagusia eta gazteek bide berriak jorratu ohi dituztela jakina denez, hauek bandaren lehen diskoa izango dena grabatu berri dute. 75. urteurrena Dendaraba aretoan egindako kontzertu batez ospatu bazen ere, diskoa ospakizun horren jarraipena izatea nahi denez, bertako pieza gehienak Primitivo Onraitak konposatutakoak dira. Hala ere, txistulariak pieza hauei tratamendu moderno eta desberdina ematen saiatu dira jatorrizko musika tresna beste batzuez lagunduz.

Baina honekin ez da banda berriaren lorpenen zerrenda amaitzen, iragan azaroan Iruñean egin zen Euskal Herriko Txistulari Banden Txapelketan hiru-garren postua eskuratu baitzuten, talde berriarekin jendaurrean jotzen zuten lehenengo aldian gainera. Gasteiztarrek parte hartu zuten hamabi banden artean gailendu ziren, lehenengo bi postuak Burlata eta Donostiako bandek, hurrenez hurren, eramanez bazi-tuzten ere.

Euskadiko txistularien txapelketa den Garikoitz Mendizabal da bandaren egungo zuzendaria

Eneko Espino Mujika, Gasteizko Udal Txistulari Bandako partaidea

“Txistuak bere espazio propioa izaten jarraitzen du”

25 urteko gasteiztar honek oso harreman estua dauka txistuarekin. Txikitik hasi eta amaieraraino eramanez izan ditu bere musika ikasketak eta aurtengoa Kontserbatorioko azken kurtsoa dauka. Ikasle eta irakasle, Euskal Herriko Txistulari Txapelketan 4. postua eskuratu du birritan.

- Zerk egiten du txistua euskal folkloreak musika tresnarik kuttunena?

- Askok hori uste dute, hau da, txistuari tratamendu berezia eman zaiola, baina nire ustez kontua ez da tresna kuttuna den ala ez. Egia da txistu ikasketak ofizialdu eta arautu egin direla, beste euskal tresna batzuekin oraindik gertatu ez dena. Baina kontua tresnarik zaharrenetarikoa izatean datza, gainera betidanik Udalekin eta ospakizun ofizialekin loturik egon da, eta horrek eragin handia izan du. Tresna batek musika asko izan behar du idatzirik hezkuntza ofi-

zialean bere tokia lortzeko eta hori ez da oraindik, adibidez, trikitiarekin gertatu. Hala ere, soinua txistua baino arrakasta askoz handiagoa izaten ari da azkenengo urteotan, horregatik ez nuke esango tresna kuttuna txistua denik.

- Orduan, txistuaren egoerak txarrera egin al du azken boladan?

- Ez, ez da hori ere. Txistuak bere espazio propioa izaten jarraitzen du eta ikasle kopurua mantendu egin dela esan daiteke. Udal Folklore Akademiaren kasuan urtero jende asko gelditzen da txisturako plazarik gabe,



eskaria oso handia da. Egia ere bada gero eta ikasle gutxiagok jotzen duela bide “profesionalera”. Oso desberdina da Kontserbatorioan edota Udal Folklore Akademian dagoen filosofia, baina hori ez da txarra.

- Hortaz, zergatik ez da egungo musikan txistuaren presentzia handitzen?

- Argi dago, esate baterako, soinua txistuak ez duen “txispa” duela. Baina jakina da, bestalde, txistuak makina bat aukera ematen dituela. Musika talde asko txistuaz ahaztu, eta beste txirula mota batzuk erabiltzen dituzte gurearen kalterako, baina, hala ere, bide berrien ikerketan eta musika mota desberdinetan hainbat saiakera egin dira. Ezin daiteke esan txistua alde horretatik mugatua denik.



Bambi Ikastola,

Bambi Ikastola zabaltzen ari den ikastetxea da. Zazpi urte iragan dira Aldabe Gizarte Etxea dagoen eremutik Tomas Zumarraga Dohatsuaren kaleko egoitzara mugitu eta "berriro jaio" zenetik. Orduz gero, aurreko aroan izandako gora-behera guztiak ahaztu eta aldi berri bati begira lanean hasi ziren, hala irakasleak nola Gurasoen Elkarteko kideak. Elkarlana bere fruituak ematen hasi da eta gaur egun Bambi Ikastolak 149 ikasle dauzka -haur hezkuntzako hiru gela eta lehenengo hezkuntzako beste sei- eta hau urterik urte 24 haur gehiagotan hazten den kopurua da.

Gorakada horren ondorioz, Bambi arazo berri bati irtenbide emateko borrokatzen ari da, espazio falta konpontzeko, alegia. Ikastetxea berez erabat osoa da azpiegiturari dagokionez (kiroldegia, musikarako gela berezia, psikomotrizitate gela, bideogela, jantokia...), baina Gurasoen Elkartearen esanetan, espazio hauek "haur gutxiago dituen Santa Maria Ikastetxearekin elkarbanatu behar izatean ez dago leku nahikorik".



Matrikulazio kanpaina berriari begira, ikastetxeak bere ateak irekiko ditu egun batzuetarako hurbiltzen den oro eraikina eta giroa ezagut ditzan. Gurasoen Elkartetik ikasle berrien kopuruak gora egiten jarraituko duela ziur dira "kalitatezko hezkuntza eta euskalduntasunaren ideia" igortzen jakin duen ikastola delako.

EUSKALDUNTASUNAREN IDEIA ZABALTZEN

Euskara ikastolako haurren ohiko bizitzaren parte bihur dadin, Bambi Ikastola Hizkuntzaren Normalizazioaren Planean buru- belarri sartuta dago eta irakasle eta gurasoen arteko elkarlanari esker, proiektuaren islada eskola orduetan zein eskola orduetatik kanpo burutzen diren jarduera guztietan suma daiteke.

"Kalitatezko hezkuntza eta euskalduntasunaren ideia" igortzen jakin du Bambi Ikastolak

IKASTOLA

BAMBI

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 5
01009 GASTEIZ
Tfnoa. 945 14 00 66

ALDE ZAHARRA



ADI
2001-2002
IKASTURTERAKO
AURRE-
-MATRIKULAZIOARI
(OTSAILEAN!)
945 14 00 66

gorako bidean

**“Gero eta ikasle
gehiago ditugu,
baina ezin ditugu
hartu espazioa
falta dugulako”**



German, Bambi Ikastolako Gurasoen Elkarteko presidentea

**“Euskara gela barruko hizkuntza
soilik izan ez dadin egiten dugu lan”**

- Zer-nolako eragina izaten du eremua “A” ereduko beste ikastetxe batekin partekatu behar izateak?

- Hori ez da inoiz arazoa izan. Ordutegi desberdinak ditugu gelak erabiltzeko eta jantokian zein patioan egoteko ere. Bi hizkuntza eredu desberdinei buruz ari gara eta praktikan ere horrela izaten saiatzen gara, euskararen alde lan egiten dugulako. Beraz, ezin daiteke esan eragina txarra denik ez delako harreman zuzenik ematen. Gure arazoa bestelakoa da. Ikastetxearen martxa primerakoa da, hiriko erdialdeko ikastola bakarra gara eta nabaritzen da; gero eta ikasle gehiago ditugu, baina ezin ditugu hartu espazioa falta dugulako. Aurreko urtean hiru gela eskatu genituen Hezkuntza Delegaritzan eta bat besterik ez ziguten eman...



- Nola gauzatzen da Hizkuntzaren Normalizaziorako Plana ikastetxearen barruan?

Duela bi urte sartu ginen HNPN, ordutik irakasleek zein gurasook elkarlana egiten dugu. Irakasleek zenbait ekintza egiten dituzte haien aldetik, adibidez hilean behin haurrekin euskaraz jolastu ohi dute patioan. Izan ere, tristea den arren, haurrek ez dute euskaraz jolasteko ohiturarik, oraindik ere ba-tzuek klaserako hizkuntzatzat baino ez baitute. Eta gure helburu garrantzitsuenetako bat gure haurrek klasetik kanpo ere haien bizitza euskaraz egin dezatela da eta jolasak oso inportanteak dira. Gurasook ere beste jarduera batzuk burutzen ditugu gure aldetik. Lehendabizi, euskara gurasoen artean bultzatzen saiatzen gara, ikastaroak antolatuz. Bakoitzaren lanak eta betebeharrak zailtasunak jartzen dituzten arren, une honetan 3. mailan dagoen talde bat daukagu eta, gutxi gora-behera, kopurua mantendu egiten da. Horretaz gainera, hilean behin euskarazko filmen emanaldiak burutu ohi ditugu ikastolako bideogelari eta beste urte batzuetan bertsolaritzako ikastaroak ere izan ditugu, aurreko urte eskasarengatik bertan behera utzi behar izan baditugu ere. Orokorrean Elkarteak eskain-tzen dituen eskolaz kanpoko ekintza guztiak euskararen normalizazioaren alde egiteko tresna dira.



Ismene Eizmendi:

“Nire probintzia ordezkatzaz oso pozik nago”



- ✓ **Jaioterria:** Laudio
- ✓ **Jaiotze-data:**
1983ko irailaren 28a
- ✓ **Ikasketak:**
Batxilergoko 2. maila
- ✓ **Kirurgia estetiko eta modan**
lan egiteko asmoa
- ✓ **Zaletasunak:** dantza, aerobic
eta baleta ditu gustuko, nahiz
eta egun soilik aerobic
praktikatzen duen.
- ✓ **Euskaraz:** ikastolan hasi, eta
institutuan gazteleraz egin
arren, Ismenek ikastolako
irakasleak diren bere izeba-
-osabekin euskaraz hitz
egiten du.

Laudiora joan zaigu aurtengo Miss Araba saria, Ismene Eizmendi gaztearen eskuetara hain zuzen ere. Hamazazpi urteko neska honek ilusioz eta harriduraz jaso zuen abenduan izan zen 2.000. urteko lehiaketaren irabazle titulua. Orain Araba probintziaren ordezkari, modan, telebista eta publizitatean arituko da Ismene urtebetez.

• **NOIZ ETA NOLA ERABAKI ZENUEN LEHIAKETA HONETARA AURKEZTEA?**

Iaz parte hartzea erabaki nuen, baina agentziara deitu eta adinagatik ezin; aurren, berriz, 17 urte bete ditudanez posible izan dut.

• **NONDIK SORTU ZEN IDEIA?**

Nire ideia izan zen, eskatutako adina eduki bezain laster apuntatu naiz.

• **BETIDANIK GUSTATU ZAIZU MODAREN MUNDUA?**

Bai, eta asko gainera. Nire ilusioa izan da betidanik.

• **ZER ESATEN ZIZUTEN LAGUNEK ETA ETXEOKEK?**

Oso pozik zeuden nire erabakiagatik eta asko animatu ninduten.

• **ZER BILATZEN ZENUEN LEHIAKETA HONETAN?**

Ilusioa handia neukan..., esan zidaten lagun onak egiteko aukera zegoela bertan eta, horretaz gain, esperientzia berriak bizi nahi nituen.

• **...TITULU BAT LORTZEARREN LEHIAN ARI DIREN PERTSONEN ARTEAN BADAGO LAGUNAK TOPATZERIK?**

Hasieran badirudi hala-hola begiratzen dizutela, baina gero oso lagun onak aurkitzen dituzu bertan.



• ZEIN DA SARIKETAN JARRAITU BEHARREKO PROZESAUA?

Agentziara deitu ondoren casting bat pasatu behar duzu, eta sailkatua izan zarenean lehia-ketarako entseiuak egiten dira; programa nola egingo duten azaldu eta ibiltokian desfilatzen irakasten digute telebistaz eman baino bi aste lehenago.

• TELEBISTAN AGERTZEN DIREN MODELOAK BEZALAKOA IZATEKO AMETSA AL DUZU ZUK?

Bai.

• ...BAINA ANTZA DENEZ MUNDU HORI OSO USTELDUTA EGOTEAZ GAIN OSO ARRISKUTSUA OMEN DA...

Hori topikoa da, "neska polita tonta perdid" delako topikoaren antzekoa alegia; ez dut uste horrela denik.

• ZER DA TELEBISTAK ERAKUSTEN EZ DUENA?

Epaimahaiak egiten digun elkarrizketa ez da agertzen, programarako prestakuntza guztia eta, batez ere, gure urduritasun momentuak.

• BERAZ, ORAIN EZAGUNA ZARA...

Beno, pixka bat esan dezakegu.

• ETA KALETIK ZOAZELA JENDEAK ZER ESATEN DIZU?

Zoriontzen naute eta oso polita naizela esaten didate; baina oro har jende gutxi hurbiltzen da niregana, zalantzan daude ni izango ote naizen edo ez.

• ORAIN IRABAZLEA IZANDA PROIEKTU UGARI IZANGO DUZU?

Momentuz elkarrizketak egiten ari naiz, programetan ere izan naiz eta Barakaldon izan nintzen desfilatzen, bertan Helen Lindes-ekin topo egin nuela.

• AHOLKUREN BAT EMAN AL ZIZUN?

Bai, momentu orotan ni neu izateko.

• MISS ARABA TITULUA ESKURATU DUZU. NOLA SENTITZEN ZARA?

Nire probintzia ordezkatzearaz oso pozik sentitzen naiz, eta oraindik apurtxo bat urduri ere bai.

• ZER DAKARKIZU TITULU HONEK?

Publizitatea, iragarkiak egiteko aukera eta Miss Araba izenpean zenbait ekitalditara joatea.

• ZEINTZUK DIRA TOP BILAKATZEAREN AUKERAK?

Ez dakit nola suertatuko diren hemendik aurrerako missen lehiaketak baina nire ilusioa bete da jada, ondo pasatu dut eta gainera titulua daukat; hala ere, gainontzeko aukerak ez ditut baztertzten.

• USTE AL DUZU LEHIAKETA HONEK EMAKUMEAREN IRUDIA KALTETZEN DUELA, KALTE DEZAKEELA...?

Ez, zu ados bazaude ez dut uste.

• MUTILIK BAI?

Ez.

• ...HEMENDIK AUERRERA IZATEKO AUKERA GEHIAGO?

-Ez dut uste, Miss Araba naizela jakitean gehiago moztzen dira eta ez dira niregana gerturatzen ausartzen.



Zirt edo Zart

• Zer eskatzen diozu bizitzari?

Zoriontsu izatea eta ondo pasatzea.

• Zure ametsa?

Ikasketak bukatzea eta, zergatik ez, modelo ona izatea.

• Amesgaiztorik?

Gaixotasunak.

• Kolore gustukoena?

Berdea.

• Jantzi erosoena?

Gona.

• Jeniorik bai?

Pixkatxo bat bai.

• Jaki goxoen?

Etxeko bazkaria, edozer gauza, arraina izan ezik.

• Biziorik handiena?

Txokolatea.

• Modelo baten izena?

Linda Evangelista.

• Txikitako oroitzapenik?

Ikastolan egon nintzenean, dena gainditzea eta oporrak gozatzea.

• Zure gorputzaren atalik politena?

Begiak.

• Itsusiena?

Ez daukat, dena dut gustuko, konforme nago.

• Irakurri duzun azken liburua?

Orain Stephen King-en La habitación de Naomi ari naiz irakurtzen.

• Musika talderik gustukoena?

La oreja de Van Gogh.

• Zapora bat?

Goxoa.

• Oporretara nora joango zinateke?

Kubara edo.

• Laudion biziko ez bazina, non?

Gasteizen.

• Diseinatzaile baten izena?

Amaia Azuaga.





APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

Eusko Alkartasunak Zorionak eta mende berri on bat opa dizkizue gasteiztar guztiei.



www.gazteabertzaleak.com



**eusko
alkartasuna**

www.ea-euskadi.com



**GORETTI
ILEAPAINDEGIA**

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73



Zaldiaran Plaza, 10 • Tfno.: 945 22 65 64

Pittilingorri: Sexua normaltasunez

Gasteizek badu sex-shop berri bat, abenduan ireki baitzituen bere ateak Pittilingorrik, Dato kaleko 40an. Aitzitik, ez da sex-shop arrunta denda berri hau, gisa honetako lokalen ohiko iluntasun eta morbotasun horretatik ihes egin nahi izan baitute bere jabeek, eta toki diferente bat ireki dute. Sexua normaltasunez saltzea, horixe da Pittilingorriren xedea.



O iartzunen eta Donostian sex-shop bana ireki ostean, Gasteizko merkata aztertzeari ekin zion Iñaki Olaizola San Pedrotarrak. Gasteizen dauden beste hiru sex-shopak ikusi eta ez zitzaizkion batere gustatu, orduan Pittilingorri berri bat gure hirian irekitzea aukera ona izan zitekeela iruditu zitzaion Iñakiri, eta halaxe egin du beste bi lagunekin batera. Bi arrazoik bultzatuta sartu zen Iñaki sex-shopen munduan: batetik, bera betidanik “oso pornofiloa” izan delako, alegia, pelikula pornografikoak asko atsegin izan dituelako; eta, bestetik, etxeko egoera ekonomikoak ere pisu itzela izan zuen mundu honetan lanean hasteko.

“Merkatua aztertu eta ohartu nintzen egoniko dendak gaizki eginda zeudela, morboarekin gehiegi jolasten zutelako: toki ilunak, argi gorriak... eta niretzat sexua hori baino askosaz normalagoa da”, dio Iñakik. Gauzak horrela, aurreneko Pittilingorri ireki zuenean, batetik negozio moduan eta, bestetik, sexua normalizatzeko asmoarekin egin zuen.

Normaltasun hori lortzeko isla nabarmena, Iñakik esan bezala, dendaren izena bera dugu: Pittilingorri. Izena ez zuten nolanahi hautatu, ezta gutxiago ere. Izenak euskaldu-



Pittilingorrik dituen kabinak uneotan aurreratu eta berrienak dira. Dendara artikulu bat erostera normaltasun osoz joaten direnak ere atsegin ditu Iñakik

na behar zuela argi asko zuten denek, baita morborik ez zuen izen bat izango zela ere. Izen sinpatikoa nahi zuten eta Pittilingorri hala iruditzen zitzairen. "Gogoia duzunean gorri jartzen zaizu, eta gehiegi ematen baldin badiozu ere gorri jartzen da..., izenak xarma handia dauka", iritzi dio Iñakik. Dendan, ordea, dagoen gorri bakarria izena eta suitzal-gailua dira, aipatutako morbositate hori ekiditu nahian. "Dendaren xedea da sexua normalizatzea, normal bezala sal-

dituen kabinak uneotan aurreratu eta berrienak dira. Orotara 10 kabina ditu eta bertan eguneko 24 orduak 96 pelikula porno emititzen dihardute kabinetako bideoek. Prezio bat ordainduta, kabinan sartu eta nahi dituzun pelikulak ikus ditzakezu (gizon-emakumeen artekoak, homosexualenak, transexualenak, titi handiko emakumeenak, zakil handidun gizonenak, sexua taldeka, bikoteka, bakarka eta abar...). Kabina hauetan aukera dago etxera lotsagatik edo, sexu-

Pittilingorri gora, Pittilingorri behera...

Izenarekin bueltaka, Iñakiri gizonezkoei erabat loturiko izena zela iruditzen zitzaigula komentatu genion, eta hauxe erantzun zigun: "Izena ez zen jarri gizonezkoengan soilik pentsatuz... Agian hurrengo sex-shopari Potota Beltza izena jarri beharko diogu... ja, ja!! Baina azken batean pitilina biek –emakumeak zein gizonak- jolasteko da, ezta?... Behin, "San Sebastian" egunean, gure maskota PITILINTXO neskaz ere jantzi genuen...".

tzea. Aktibitate guztiek beren merkatua dute (jatea, janztea...) eta sexuak ere badauka, hortaz, pentsatzen dut normala bezala saldu behar dela, toki arrunt bat baita".

ARTIKULUAK, KABINAK ETA PELIKULAK

la eramango ez zenukeen pelikula ikus-teko.

Pelikula pornografikoez gainera, sexuarekin gozatu, jolastu eta amets egi-teko artikuluak ere saltzen dituzte. Latexa deritzon produktuen artean, bibragailuak, baginak, panpinak, kon-doiak, lubrifikatzaileak eta beste hamai-ka artikulu aurki ditzakegu. Bromazko artikuluak ere ez dira falta Pittilingorrin, batik bat ezkondu aurreko agur afarietan eta oparitzeko. Gisa honetako materiala sex-shopetan aurreneko aldiz sartzen direnek erosten ei dutena da.

"Gehienetan aitzakia honekin sartzen



**Zorionak eta
Urte Berri On**

Gran Soleko Arrantzaleen
Kalea 3. ARCCO ondoan.
Tel: 943 44 56 63
DONOSTIA



MAMUT Galeria, 62. Tel: 943 49 44 67 **OIARTZUN**

Dato Kalea, 40. (Tren geltokiaren ondoan). Tel: 945 15 42 60 **GASTEIZ**





dira dendara, eta horrek aukera ematen du sex-shopa ezagutarazteko; gero apurka-apurka jendea dator pelikula bat alokatzera eta abar...", azaltzen du Iñakik.

Sadoa gustuko duenarentzat ere artikuluak ditu dendak: ustak, sadoko lentzeria, eskuburdinak... Gustu guztientzako materialak eta jostailuak, beraz.

Dudarik gabe, giro ezin hobean sexuaz beldurrik eta lotsarik gabe gozatzeko aukera eskaintzen du Pittilingorrik, mamu guztiak alde batera utziz eta naturala dena naturaltasunez biziz.

B A T - B A T E A N

Izen-abizenak: Iñaki Olaizola Antxustegi. **Adina:** 34 urte

Jaioterria: San Pedron jaio eta Oiartzunen bizi da

Hobbyak: Lagunekin elkartean afaltzea izugarri gustatzen zaio. Juerga garaia pixka bat pasa zaiola dio, eta nahiago duela lagunekin eseri, afaldu eta hitz egitea. Bestetik, audio-bideo sistemetan aditua da. Sex-shoparen gauzarik gustukoena: Pelikulak. Betidanik oso "porno-filoa" izan dela onartzen du eta film pornografikoak asko gustatzen zaizkio. Horretaz gainera, dendara artikulu bat erostera normaltasun osoz joaten direnak ere atsegin ditu.

Sexua maitasunarekin ala gabe?: Gauza biak "bateragarriak" direla diosku. "Eman daiteke sexua maitasunik gabe, baina zailagoa da maitasuna sexurik gabe egotea". Bere aburuz onena maitasuna eta sexu ona izatea da, "baina horretarako harremanean komunikazioa beharrezkoa da".

Sexuan guztia onar daiteke? Zoofilia, adibidez?: Animaliekin praktikaturako sexua ez duela gustuko dio, eta ulertzeko zaila egiten zaio. Hala ere, pertsonen artean praktikaturako sexuan, guztiok ados egonez gero, ongi ikusten ditu aukera desberdinak. Gai honetan besteak moralki epaitzeko inolako zilegitasunik ez duela uste du.

"Sex-Shop"etan, izenak berak adierazi bezala, sexuarekin erlazionatuta dauden artikuluak saltzen dira. Komertzio mota honek Gasteizen pauso bat aurrera eman du denda berri bat irekitzean. Hau dela eta, kalera irten gara... Hona hemen hiritarrek esandakoak:

SEXSHOPAK

1.- Zer deritzozu "Sex-Shop" berri bat irekitzeari?

2.- Noizbait egon al zara hauetako batean? Ba al duzu joateko asmorik?



Jose Angel Cid. Ikaslea

1.- Honelako komertzio bat irekitzea ondo dagoela uste dut, beste edozein denda bat bezalakoa da.
2.- Oraindik ez naiz egon, baina ezkontzearen dagoen lagun bati zerbait erostera bai joango nintzatekeela.



Igor Cuadrado. Ikaslea

1.- Komertzio mota hau oso arrunta ez denez, hiritarrentzat erakargarria izan daitekeela uste dut.
2.- Oraindik ez naiz joan, baina horretarako beharra banu zalantzarik gabe joango nintzateke.



Eduardo. Komertziala

1.- Denda berri bat irekitzeak esan nahi du eskari asko dagoela, ondorioz eskaintza ere zabaldu behar da.
2.- Kasua emango balitz ez lidake lotsarik emango denda hauetan sartzeak.



Nerea Saenz de La Fuente. Esataria.

1.- Oso ondo iruditzen zait mota honetako denda berri bat irekitzea, batez ere pentsatzen dena baino jende gehiago joaten delako bertara.
2.- Momentura arte lagunaren arteko festa kontuetaireko joan naiz; gaur egun hala ez bada ere, noizbait bertako artikuluren bat behar banu, ez nuke inolako arazorik izango hara joan eta erosteko.



Aroa. Ikaslea

1.- Ideia ona iruditzen zait, nahi duenak edo gogoia duenak bertara joateko askatasun eta eskubide osoa baitu.
2.- Lagunen bati bromaren bat egiteko artikuluren bat erostera agian joango nintzateke, baina bestela ez.



Elena Irizar. Etxekoandrea

1.- Oso ondo iruditzen zait "Sex-Shop" berri bat irekitzea, mota guztietako nahiak asetzeko moduko komertzioak egon behar dira eta.
2.- Ez naiz denda hauetan egon, eta momentuz bada ere, ez dut joateko asmorik.


IRUSTA
poteo eta pintxoak **TABERNA**
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
 Mateo Moraza 19
 Tfnoa: 945 23 19 33
 GASTEIZ

**Ka
La
MUA**
TABERNA
 Obdulio Lpz. de Uralde
 Margolaria, 5
 Tel. 945-22 65 47 • Fax. 945-26 50 16
 01008 Vitoria-Gasteiz

EL

BAR
Kutxi
 e
g
u
n
e
k
o
a

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
 bokatak,
 pintxoak,
 kazuelatxoak
 Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39


JATETXEA
 Aiztogile kalea (Kutxi), 26
 tfnoa: 945 28 81 47
 GASTEIZ

bar • restaurante

• albéniz •
 Errege atea, 9 • GASTEIZ
 Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

XIXILU
JATETXEA
 AMARIKA PLAZA, 2
 Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ


Arabatel

Bizenta Mogel (Aranzabal), 6 zk.
 01008 GASTEIZ
 Tfnoa.: 945 15 17 16 • Faxe: 945 14 24 91

Zumalakarregi Etorbidea, 38 zk.
 01400 LAUDIO
 Tfnoa.: 94 403 55 66 • Faxe: 94 403 55 67


Euskaltel-en
GASTEIZ - LAUDIO

ZURE
SALMENTA
GLOBALAREN
PUNTUA

-  TELEFONIA TINKOA
-  TELEFONIA MUGIKORRA
-  INTERNET

**Komunikazioan zure enpresak
 behar dituen irtenbide guztiak**

HITZALDIAK

"GAUR GUREKIN..." (Gasteizko Udaleko Kultura Saila)

URTARRILAK 9: **FELIPE JUARISTI** (Donostiako euskal poeta)

MARTXOAK 27: **ITXARO BORDA** (idazlea, Baionan jaioa eta Zuberoan hazia)

- **GOIURI JAUREGIAN** (Aihotz plaza), 20:00etan

EKIMEN BEREZIAK

ADI "SUPERMERCADO DE ARTE"-RI!!!

Artea prezio eskuragarrietan erosteko ekimen originala!

ZULOA-ESPACIO. Urtarrilaren 15era arte

ERAKUSKETAK

PACO SAN MIGUEL-EN ESKULTUREN ERAKUSKETA

ZALDUONDOKO LAZARRAGA JAUREGIAN

Otsailaren 4ra arte

Ordutegia: Larunbatetan (17:30-19:30)-Igandeetan (12:00-14:00)

Zalduondoko Kultur Elkarteak antolatua

LEHIAKETAK

BERDINTASUNA DA GAKOA

Kontakizun laburren V. Literatura Lehiaketa

Antolatzailea: Gasteizko Udala, Berdintasunerako Udal Zerbitzua

Epea: 2001eko urtarrilak 19

Informazioa: Gasteizko Udala. Berdintasunerako Udal Zerbitzuan edo ERDUn (945 16 16 87)

VI. Argazki Lehiaketa

Antolatzailea: Gasteizko Udala, Berdintasunerako Udal Zerbitzua

Epea: 2001eko urtarrilak 19

Informazioa: Gasteizko Udala. Berdintasunerako Udal Zerbitzuan edo ERDUn (945 16 16 87)

PARRAL TABERNA

URTARRILAK 9: **PEDRO HERRERO** (Madril. Bakarlarria)


URTARRILAK 16: **SUPERLIGEROS** (Gasteiz. Rock'n'Roll akustikoa)

URTARRILAK 23: **BLUES MACHINE** (Madril)

URTARRILAK 30: **IGELAREN BANDA** (Geu elkarte. Kultur Errota)

IRAGARKITXOA

Arartekoaren bulego aurrean (PRADO KALEAN)
etxebizitza saltzen dut. Guztira 72 metro karratu.
Interesatuok 656715073 telefonora deitu.





KAIXO, IKASLEOK...ALVARO JAUNA NAIZ, HISTORIAKO IRAKASLE BERRIA NAUZUE. NIRE AURTENGO LANA, ZUEI HISTORIAREN BENETAKO GERTAKIZUNAK AZALTZEA IZANGO DA. GAUR ADIBIDE BATZUEKIN HASIKO GARA...



ANTZINEAN, INPERIOAREN NAGUSITASUNA ZABALTZEKO, BASKONGADOEK FRANTZIAKO HEGOALDEAREN ZATI BAT KONKISTATU ZUTEN...



...GURE ERREINUARENTZAT, MUNDUA INGURATZEN LEHENAK IZATEA OHORE BAT DA. OHORE HAU GIZON BAKAR BATERI ESKERTU BEHAR DIOGU: JUAN SEBASTIAN DE EL CANO EDO JUAN SEBASTIAN DEL CANOri...



ASPALDI, ASPALDIKO GERRA BATEAN, SEPARATISTA ETA KOMUNISTEK, GERNIKAKO HIRIA TXIKITU ZUTEN, INNDAR ASKATZAILEEI DESASTREA LEPORATZEKO ASMOAREKIN

ETA GAINERA BIKTIMEN KOPURUA GEHITU ZUTEN, LOTSAGABEAK



ADI EGON, ZUEN GURASOEK ERREINU ETA KONSTITUZIOA ONARTU ZUTELAKO, ETA EUSKAL FUTBOLARIEK HAINBAT ARRAKASTA LORTZEAGATIK DENONA DEN GURE FUTBOL SELEKZIOAN...



TAMALEZ GAURKO MUNDUTIK MUGITZEKO, BASKUENTZEA EZ DA NAHIKOA, BAINO ESKERRAK EMAN BEHAR DUZUE GAZTELANIAREN OPARIARENGANDIK MUNDU OSOAN ERABIL...

ETA 'KOLATUKO' DUELA USTE AL DUZU?

AGIAN BAI JAUNA, AGIAN BAI



KONTUZI: TXORRADA HAUEK IRRATIKO TERTULIETAN ENTZUNDAKOAK DIRA. GOGORATU GOEBELSEK ZER ESATEN ZUEN: "GEZUR BAT, MILA ALDIZ ERREPikatU ONDOREN EGIA BIHURTZEN DA"



adi

1

otsailari

martxoari

apirilari



EUSKARA AHOTIK AHORA



KOLDO MITXELENA
I N S T I T U T U A
G A S T E I Z